

## HAUNDI ALA TXIKI?

*Doinua: "Uso zuria"*

1

Haundietan haundiena  
Jaungoikoa dau izena.  
Zeru-lurretan garan guztion  
hasiera ta azkena;  
garan guztia zor deutsagu-ta  
Berari esker, omena.

2

Jainkoa gizon egina,  
txikienakin bardina;  
"Haundiena" da ta "Txikiena",  
hauxe ulertu ezina!  
Ze Jaungoikogan sinisten dogun  
egin daigun esamina.

3

Trumoi-arteko Jainkoa,  
ala Kalbariokoa?  
Guri bizia emotearren  
bizia emondakoa...  
Jesukristoren ta gure Aita  
da "Ebanjeliokoa".

4

"Haundienari" txalotsa,  
"Txikienari" bihotza.  
Biok batera zaitugu, Jesus,  
Erregea ta Bildotsa:  
Zeureak dira eta hartu gure  
bizia ta heriotza

5

Jainko nahiz gizon bardin da,  
biak dagoz bat-eginda.  
Jainkoa gizon, gizona Jainko,  
hau egi dala jakinda:  
"Gora Jainkoa, behera gizona"  
hori ezelan be ezin da!

6

Jainko, hau da maitasuna,  
dohain guri deuskuzuna!  
Bihotz-bihotzez Zu maitatzea  
da gure eginkizuna;  
behar bestean ezin dogu-ta  
bete Zeuk gure hutsuna.

7

Hau da haundi izan nahia!  
Nor ez da honetan saia?  
Jainko Semea gizon egina  
jarri da serbitzen "mahaia"...  
Morroi zintzoa egiten danak  
dau "haundi" izateko gaia.

8

O adiskide maitea,  
hontaz kontura zaitea:  
Estu txikia dala, esanda  
dago zeruko atea;  
horrela bada, "haundia" barik,  
hobe "txikia" izatea.

A. Martzel